

# Kartak aldatzen



## ONAY

Organización Navarra para  
Ayuda entre los Pueblos

Herrien Arteko Laguntzarako  
Nafar Erakundea

**EUSK.**

**Nafarroako  
Gobernua**



**Gobierno  
de Navarra**



**AGENDA  
2030**

Koordinazioa eta edizioa: **ONAY. Organización Navarra  
para ayuda entre pueblos.**

Webgunea: **[www.onay.org](http://www.onay.org) | [onay@onay.org](mailto:onay@onay.org)**

Irudiak: **César Garralda**

Maketazioa eta diseinua: **Maite Marañón Díez**

# AURKEZPENA

2015eko irailaren 25ean, munduko 193 agintarik konpromisoa hartu zuten mundu mailako **17 helburu betetzeko, datozen** 15 urtean aparteko 3 gauza lortze aldera. Hona hemen:

- ◆ **Muturreko pobrezia errotik desagerraraztea**
- ◆ **Desberdintasunari eta bidegabekeriari aurre egitea.**
- ◆ **Klima-aldaketa konpontzea.**

Helmuga horiek lortzeko, mundu guztiak dagokionan egin behar du: gobernuek, sektore pribatuak, gizarte zibilak eta pertsonak. **ONAYk** lankidetzan oinarritutako karta joko dibertigarri bat proposatu nahi du 8 eta 10 urte arteko haurrentzat **4. GJHren inguruan: Kalitatezko hezkuntza.**

**ONAYk 25 urte** baino gehiago daramatza hainbat herrialderekin lankidetzan zenbait arlotan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta landa garapenean. Era berean, gizarte solidarioagoa, kritikagoa eta konprometituagoa eraikitzearen aldekoak gara Nafarroan; bada, horren baitan sortu dugu material hau.

Garapen-bidean diren herrialdeetako lehen irakaskuntzako matrikulazioa %91 da gaur egun, baina lehen hezkuntza jasotzeko adinean dauden 57 milioi haur oraindik ere ez doaz eskolara. Eskolan matrikulatuta ez dauden haurren erdia baino gehiago Saharaz azpiko Afrikan bizi dira. Kalkuluen arabera, lehen hezkuntzako eskolara ez doazen haurren erdiak gatazkek jotako lekuetan bizi dira. Munduan, 617 milioi gaztek ez dute oinarrizko ezagutzarik aritmetikan, eta alfabetatze maila apala dute.

Kalitatezko hezkuntza lagungarria da hezkuntza inklusiboa eta berdinzalea bermatzeko. Era berean, ikaskuntza iraunkorrerako aukerak sustatzen ditu jende guztiarentzat. Hezkuntza gakoa da Garapen Jasangarriko beste Helburu (GJH) asko lortzeko. Pertsonak kalitatezko hezkuntza eskura dutenean, pobreziatik ihes egin dezakete.

Horrenbestez, hezkuntza lagungarria da desberdinkeriak murrizteko eta genero berdintasuna lortzeko. Halaber, mundu zabaleko pertsonak ahalduntzen ditu bizimodu osasungarriagoa eta jasangarriagoa eraman dezaten. Hezkuntza ere funtsezkoa da jendearen arteko tolerantzia sustatzeko eta gizarte baketsuagoak sortzen laguntzeko.

Joko honen bidez, ikasleek ezagutuko dute zer errealitate dauden lau herrialdeetan hezkuntza formalaren inguruan eta, halaber, hausnarketa egiteko aukera izanen dute haurrak jasotzen duen hezkuntzaren kalitatean eragina duten hainbat faktoreren inguruan (familia, komunitatea...).

**ONAY**n prest gaituzue joko honen ezarpenean laguntzeko; beraz, jo gurenagana edozein galdera egiteko eta/edo laguntza eskatzeko.

**[www.onay.org](http://www.onay.org) | [onay@onay.org](mailto:onay@onay.org)**

---



# JARRAIBIDEAK

Ikasleek istorio bat (edo marrazki bat, irudikapen bat...) garatuko dute, karta batzuetatik abiatuta. Horixe da helburua. Kontatu behar dute nolakoa den egokitu zaien pertsonaiaren ikasle bizitza eta horrek zer-nolako eragina izango duen pertsonaiaren etorkizunean.

Jolasak 60 karta ditu, 4 multzotan banatuta:

## ◆ **Lurraldeak**

(8 karta); haietan, pertsonaiaren lurraldea zehaztuta dago eta eskola mota ikusten da.

## ◆ **Familiak**

(12 karta): pertsonaiaren familia ageri da.

## ◆ **Pertsonaia**

(24 karta): istorioko protagonista da.

## ◆ **Baldin eta...?**

(16 karta): karta hauek aldaketak egiten dituzte hasierako istorioan; beraz, istorioa bera aldatu dezakete eta/edo istorioaren amaiera ere bai.

1. **urratsa. *Eskola;*** Moderatzaileak Eskolen karta multzoa hartu, karta bat aukeratu eta mahaian jarriko du, denek ikus dezaten.
2. **urratsa. *Familia;*** Moderatzaileak Familien karta multzoa hartu, karta bat aukeratu eta mahaian jarriko du, denek ikus dezaten.
3. **urratsa. *Pertsonaia;*** Moderatzaileak PERTSONAIEN karta multzoa hartu, pertsonaia bat aukeratu (karten atzealdeetako zenbakiek eta koloreek erabakiko dute kartak zer hurrenkeratan atera), eta mahaian jarriko du, denek ikus dezaten.
4. **urratsa. *Historia;*** Jokatzen ari den ikasleak kontatu behar du nolakoa den pertsonaiaren eskolako bizitza eta pertsonaia bera nolakoa izango den handitan. Adibidez:

*“Sandra Nafarroan bizi da, baina haren familia lehenago Marokon bizi zen. Oso eskola politera doa eta oso pozik dago. Handitan, mediku izan nahi du eta lortuko du, egunero asko ikasten duelako”*

*“Nino Kongoko Errepublika Demokratikoa da eta haren familia oso behart-*



*sua da. Eskolara doa, baina oso eskola txikia da eta han ia ez du deus ere ikasten. Horregatik, handitan, ez du lan onik izango eta haren seme-alabek ere ezin izango dute joan eskola on batera”*

Hona hemen istorioak gidatzeko egin daitezkeen galdera batzuk:

***X egunero joaten al da eskolara?***

***Asko ikasten al du? Eskolako lanak etxean egin ditzake?***

***Unibertsitatera joango al da?***

***Handitan, lan on bat izango du?***

5. **urratsa. Baldin eta...?;** Moderatzaileak “Baldin eta...?” karta multzoa hartu eta karta bat aurrekoen ondoan jarriko du. Aukeraketa hori “itsuan” egin dezake edota, bestela, moderatzaileak karta jakin bat aukeratu dezake gai horri buruz hitz egiteko. Une horretan, ikasleak berriz ere istorioa kontatu beharko du, baina karta berrietara egokituta. Adibidez:

*“Sandra Nafarroan bizi da, baina haren familia lehenago Marokon bizi zen. Oso eskola politera doa eta oso pozik dago.*

*Handitan, mediku izan nahi zuen. Baina koronabirusa iritsi zenean, ez zuen ordenagailurik etxean eta ezin izan zien eskolei jarraitu, eta orain, ikasturtea errepikatuko du. Mediku izan nahi du, baina uste du asko kostatuko zaiola, etxean ezin diotelako laguntza handirik eman”.*

*“Nino Kongoko Errepublika Demokratikoa da eta haren familia oso behartua da. Eskolara doa, baina oso eskola txikia da eta han ia ez zuen deus ere ikasten. Behin batean, liburuz eta ordenagailuz beteriko kamioi bat iritsi zen hobeki ikasteko, eta Nino izugarri poztu zen. Orain, uste du unibertsitatera joateko aukera izango duela, handitan izan nahi duena izateko”.*

Hona hemen istorioak gidatzeko egin daitezkeen galdera batzuk:

***Nola eragiten du ikastetxe motak istorioan?***

***Lagungarria al da baten batek zurekin eskolako lanak egitea, zure gurasoek, adibidez?***

*Zure familiak diru gehiago badu, gehiago edo hobeki ikasiko duzu?*

*Gerrek, uholdeek.... eragina dute haurrengan?*

Era berean, ikasleei eska dakieke zuzenean aukeratu dezatela halako karta jakin bat edo batzuk istorioa hobetzeko.

**6. urratsa. Azken gogoeta;** ikasleei eskatuko diegu azal dezatela nola eragin duten aldaketek istorioan, edota pentsa dezatela zer aldaketa egingo lituzketen, aldaketa horiek aukeratzeko parada izatera. Era berean, galdetuko zaie nola egin litezkeen aldaketa horiek edo antzekoak mundu errealean. Adibidez, urakanak hein batean sortzen dira guk geuk eragiten dugun klima-aldaketaren ondorioz; eskolak neurri handian herrialdeetako gobernuen mendean daude; asko edo gutxi ikastea pertsona bakoitzaren mendean dago, baina era berean, bakoitzak dituen irakasleen mendean eta/edo familiaren mendean...



Resourced schools · Escuelas con recursos · Eskola baliabidedunak



ntzia



rk



No transport · Sin tr...  
riorik gabe

# Baldin Eta...? Kartak

**Klima-aldaketa:** Temperaturaren igoera globalak ondorio hondagarriak eragiten ditu eta, horren ondorioz, arriskuan dago Lurreko landarediaren eta faunaren biziraupena, bai eta gizakia bera ere. 2000tik hona, 475.000 lagun baino gehiago hil dira muturreko gertakari meteorologikoen ondorioz, *'Global Climate Risk Index 2021'* indizearen arabera. Klima-aldaketaren eraginez, halaber, gero eta gehiago dira fenomeno meteorologiko bortitzagoak, lehorteak, suteak, landare eta animalia espezieen heriotza, ibai eta aintzira uholdeak, errefuxiatu klimatikoak, eta bizibideen eta bitarteko ekonomikoen suntsiketa; garapen-bidean diren herrialdeetan, bereziki.



**Osasun-sistema txarra:** Bost milioi haur baino gehiago hiltzen dira urtero 5 urte bete baino lehen. Mundu osoan aurrerapausoak badira ere, oraindik ere oso altua da 5 urtetik beherako haurren heriotza-tasa



Saharaz azpiko Afrikan eta Asiako hegoaldean. Haurraren osasun egoera orokor ona onuragarria da hezkuntza errendimendurako eta ongi ikasteko. Gaixotasunek, ordea, eskola goiz uzteko arriskua areagotzen dute.

**Ikastetxerik eza:** Mundu zabaleko 6 eta 17

urte arteko 260 milioi haurrek baino gehiagok ez dute hezkuntza formalean sartzetik, Hezkuntzarako Berrikuntzaren Mundu Gailurraren arabera.

Dela desplazamenduek eraginda, dela pobrezia, berdintasunik ezak edo

beste arrazoi askok eraginda, 262 milioi

haurrek ez dute ikastetxera joaterik; haietatik, 64

milioi lehen hezkuntzako adinean daude; 61, beheko

bigarren hezkuntzako adinean eta, 138 milioi, goiko

bigarren hezkuntzan. Mundu zabaleko haur

askorentzat, ez da ezohikoa etxetik eskolara bitarteko

eta eskolatik etxera bitarteko ibilaldiak hiru ordu

irautea. Hori gehiegi da, bereziki desgaitasuna duten

haurrentzat edo malnutrizioa pairatzen dutenentzat,

edo gaixo daudenentzat, edo etxeko lanak egiteko

beharrezkoak diren haurrentzat. Horrela, haur asko

–neskatoak, batez ere– indarkeriaren mehatxupearan

daude etxetik eskolara eta eskolatik etxera joateko bide luze eta arriskutsuan.



**Familiaren laguntza:** Pertsona heldu arduratsu eta gaitu batek haurrak motibatzen baditu eskolako lanak egin ditzaten, eta haien lana gainbegiratu eta haien zalantzak argitzen baditu, hurrek aukera handiagoa izanen dute eskolan ongi moldatzeko. Baina, helduak eskolako lanak egiten baditu, haurrak ez du deus ikasiko eta ez da bere eginbeharrez arduratuko.



**Haur lana:** 5 eta 17 urte arteko 151,6 milioi hurrek lan egiten dute; hau da, munduko 10 hurretatik 5ek. Ia erdiak haur lanaren aldaerarik txarrenetako batean ari dira, hala nola esklabotzan, giza salerosketan, lan behartuan edota gerrarako errekrutaturik. Haur lanak hezkuntzarako eta jolaserako eskubiderik gabe uzten ditu haurrak, abusuen eta indarkeriaren arriskupean jartzen ditu, pobrezia-zikloak sendotu eta desberdinkeria soziala sakontzen du. Etxeko lanetan ari diren neskatoen kasua bereziki larria da. Kalkuluen arabera, neskatok 550 milioi ordu eskaintzen dizkiote etxeko lanari egunero, hau da, adin bereko mutikoek baino 160 milioi



ordu gehiago. Gainkarga hori lehen haurtzaroan hasten da, 5 urte doi dituztenean, eta neskatok nerabezarora iristen direnean areagotzen da.

**Gerra:** Gerrek, eskola-sistemaren azpie-



gitura hausteaz gain, belaunaldi oso baten irrikak eta bizipoza urratzen dituzte. Gerrarik dagoen herrialdeetako haurrek aukera gutxiago

dute lehen hezkuntzako eskolara joateko eta, horrez gain, aukera gutxiago ere ikasketak bukatzeko. Kalkuluen arabera, lehen hezkuntzako azken mailako biziraupen-tasa %65 da gerrek jotako herrialde pobreetan; gainerako herrialde pobreetan, berriz, %86.

**Epidemia:** 2020an, COVID-19ak era-



gindako pandemia planeta osoan hedatu ahala, herrialde gehienek eskolen behin-behineko itxiera iragarri zuten. Horrela, neurri ho-

rrek mundu zabaleko ikasleen %91ri baino gehiagori eragin zion. 2020ko apirilean, 1.600 milioi haur eta gazte eskolatik kanpo zeuden. Era berean, eskola-jantokien mendeandauden 369 milioi haur inguruk beste elikaduraiturri batzuk bilatu behar izan zituzten beren



egunerokoan. Inoiz ere ez ziren egon hainbeste haur eskolatik kanpo aldi berean. Horrek eragin kaltegarria du haien ikaskuntza-prozesuan eta sekulako aldaketa eragiten du haurren bizitzetan; batez ere, pobreenen eta baztertuenen artean. Munduko pandemiak eragindako ondorio larriek arriskuan jar ditzakete hezkuntzan mundu mailan ederki kostata lortutako aurrerapausoak.

**Garraiorik gabe:** Ikastetxeak ez daudenean haurren etxetik hurbil, funtsezkoa da garraio publiko ona eskura izatea, haurrek hezkuntzarako duten eskubidea segurtasunez bermatze aldera. Garraio horrek huts egiten badu, hezkuntzarako eskubidea urratua da, eta hori behin eta berriz gertatzen da baliabideak urriagoak diren lekuetan.



**Familiarik gabe:** Haurren Eskubideen aldeko Nazioarteko Konbentzioak familia izateko eskubidea ematen dio haur orori. Familia izateko eskubideari esker, haurra istorio bati lotu dakioke eta, batez ere, babes-eremu bat eskaintzen dio bere eskubideen urraketaren aurka. Familiarengandik urrundutako



haurrak aise bihurtzen dira indarkeriaren biktima, bai eta esplotazioaren, giza salerosketaren, bazterkeriaren edota beste tratu txar mota batzuen biktima ere.



### **Eskola baliabidedunak:**

ikaste-  
txeak altzari egokiz hornituak ba-  
leude, bai eta liburuz, informati-  
ka-tresnaz, internetez... hornituak  
ere, haurrek motibazio handiagoa iza-  
nen lukete egunero eskolara joateko, eta  
haien emaitzak hobekak lirateke, jasotako  
hezkuntza kalitatez hobea litzatekeelako.



### **Baliabiderik gabeko eskolak:**

Munduko eskolen %19k ez dute  
edateko ur zerbitzurik. Latinoame-  
rikako 60.000 eskolak baino ge-  
hiagok ez dute argindarrik. Munduko  
toki askotan, sei ikaslek edo gehiagok,  
maiz, ikasliburu zaharkitu eta higatu ber-  
berak erabili behar dituzte. Tanzaniako Erre-  
publika Batuan, adibidez, 6. mailako ikasleen  
%3,5ek soilik daukate irakurketarako ikasliburu  
bat beraiendako bakarrik. Kamerunen, 2. mailan,  
lehen hezkuntzako 11 ikasle daude irakurketa-  
rako ikasliburu bakoitzeko, eta 13, matematikako

ikasliburu bakoitzeko. Gutxi dira koadernoak eta ariketa-orriak, eta gutxi ere irakurketa-gidak eta bestelako laguntza-materialak ikasleek beren ikasgaiak ikasteko. Irakasleek ere materialak behar dituzte ikasgaiak prestatzen laguntzeko, ikasleekin partekatzeko eta gida gisa erabiltzeko.

**Errepide txarrak:** Ikastetxeak ez daudenean haurren etxetik hurbil, behar-beharrezkoa da eskolara doan errepidea beti egoera onean eta ibiltzeko moduan egotea, euri-jasak edo elurteak izanik ere. Agintarien ardurara da errepideak ongi eta ibiltzeko moduan mantentzea.



**Oztopo arkitektonikoak:** Hezkuntza giza eskubide unibertsala izanik ere, ohikoa izaten da mundu zabaleko 93 milioi haur desgaituri eskolara joateko aukera ukatzea.

Horrela, munduko herrialde pobreentako batzuetan, desgaitasuna duten haurren %95ek ere ez dute eskolara joaterik. Dela bazterketa, dela irakasleek irakasbide barneratzaileetan gaikuntzarik ez izatea, dela eskola irisgarririk inola ere ez izatea, kontua da ikasleei



oso erraz kentzen zaiela hezkuntzarako duten eskubidea.



**Lehortea:** Goseak hezkuntza-sistemetan izan duen eragina larriki minimizatua izan da. Malnutrizio larriak garunaren garapenari egin diezaioke kalte eta lau eskolatze-maila galtzearen baliokidea izan daiteke. Garapen-bidean diren herrialdeetako 171 milioi hurrek atzerapena pairatzen dute hazkuntzan 5 urte betetzen dutenetarako. Horrek haurren trebetasun kognitiboetan izan dezake eragina, bai eta eskolan kontzentratzeko duten gaitasunean ere. Horren ondorioz, atzerapen horren eraginpean dauden hurrek %19k probabilitate gutxiago dute irakurtzen jakiteko 8 urte betetzean. Nutrizio ona, ordea, funtsezkoa izan daiteke behar bezala prestatzeko, ikaskuntza ona lortze aldera.



**Materialik eza:** la 385 milioi haur muturreko pobrezian bizi dira, eta ondorioak esparru guztietan gertatzen dira, baita hezkuntzan ere. Ez dago material egokirik, ezta eskola jantzirik ere (herrialde askotan,

derrigorrezkoa da ikastetxe guztietan) eta, horrek haurraren eskola-garapenari eragiten dio, bai eta haren autoestimuari eta gizarte-harremanei ere. Pobrezia oraindik ere estigma da munduko herrialde guztietan; gainditzeko zaila.

**Pobrezia:** Munduko Bankuak egin

duen atariko kalkuluaren arabera, jo-

tzen da 2020an 703 eta 729 milioi

pobreren artean egongo direla

gure munduan. Pobrezia herrialde

guztietan dago (Nafarroan, 36.911

pertsona behar gorrian bizi dira), eta hiri

eta herri guztietan bada diru arazorik dagoen jen-

derik. Familia horientzat ezinezkoa da seme-ala-

bek behar duten eskola-materiala erostea; ho-

rrenbestez, askotan, horrek kalte egiten die haur

horien eskola-errendimenduari.



# Herrialdeak:



**Kongoko  
Errepublika  
Demokratikoa**



**Maroko**



**Nafarroa**



**El Salvador**

# Karta motak:



**Eskola**




**Familia**



**Pertsonaia**



**Baldin Eta...?**



**ONAY**

Av. de la Baja Navarra, 64, 1º  
31006 Pamplona, Navarra  
[www.onay.org](http://www.onay.org) | [onay@onay.org](mailto:onay@onay.org)